

Carme Junyent

«Elebitasuna apurtu behar da etorkinen hizkuntzekin»

Carme Junyent hizkuntzalaria, Katalunian hizkuntza aniztasunari buruzko azterketetan ikerlari nagusienetakoa da. Bartzelonako Unibertsitateko Mehatxupeko Hizkuntzen Ikerketarako Taldearen sortzailea da. Hizkuntza menperatuek aurrera egiteko bidea eleaniztasuna dela uste du.

ONINTZA ENBEITA

IRAKASTEN EZ DIREN hizkuntzek betidanik liluratu dute Carme Junyent. Urte askotan egin du lan galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan. “Orain dela urte batzuk esan izan balidate, Kataluniatik irten gabe, Pirinioetan, Kamerungo pigmeo bat aurkituko nuela...”, dio berak. Alegia, errealtatea aldatzen ari dela. “Mehatxatutako hizkuntzak ikertzeko taldea sortu genuenetik, milioi bat etorkin gehiago daude Katalunian”.

Hasieran, Junyent eta beste kideek osatutako taldea ez zen migrazio gaiez arduratzen, baina Kataluniako paisajea hizkuntza berriak agertu ahala, lan horretan sartu ziren. “Hizkuntza gutxietako hiztunak mehatxatutako hizkuntzen inguruko galderak egiten hasi zirenean, guregana jo zuten. Prozesu honen lehen lerroan ikusi genuen geure burua”, adierazi du Junyentek. “Hasieran zeraz konturatu ginen; immigrazioa ez dugula ondo hartzen, hau da, geu tratatzea gustatzen ez zaigun moduan tratatzen ditugula etorkinak”.

Egunkarietako titularrekin ez zegoen ados Junyent. “Katalunian hitz egiten ziren hizkuntzen kopurua, etorkinen jatorrizko herrialdeen kopurua baino txikiagoa zen”. Munduan zenbat hizkuntza ez-ofizial dauden kontuan izanda, ez zitzaion irensteko moduko datua iruditzen. Kataluniako benetako errealtatea



INIGO AZKONA

jakitea izan zen eman zuten lehenengo pausoa. Horretarako, galdetegia prestatu eta eskoletan landu zuten. Junyent berari Alemanian gertatutako moduko kasua ezagutu zuen eskola horietako batean; berari gaztelaniazko itzultzaileak eskaini zitkioten Alemanian. Kataluniako eskola batean, ikasle marokoarren gurasoekin hitz egiteko arabierako itzultzaileak hartzen zituzten. Baina Marokoko familia asko amazigh kulturako dira, tamazigh hizkuntza hitz egiten dute eta itzultzailearekin ezin izaten zuten moldatu. Azkenean, ikasleek egiten omen zuten interpretearena.

Orain arte 260 hizkuntza identifikatu dituzte Katalunian. Junyenti

ardura dion gauza bakarra ez da kantitatea: “Garrantzitsua da jakitea zenbat jendeak hitz egiten dituen; bai euren herrialdean eta bai gurean. Izan ere kasu ikusgarriak aurkitu arren —rapanui, hiboak...—, garrantzitsua da jakitea hizkuntza horietatik 40 inguru gure herrian bertan errotu daitezkeela hiztun kopuruari erreparatuta”. Junyenten ustez, Katalunian 300 hizkuntza hitz egiten direla esateak ez luke inor harritu behar, nahiz eta denak katalogatuta ez egon. Kontua da orain zer egiten den hizkuntza horiekin, eta ulertzen du jende askok katalanarekiko duen kezka.

Azken urteetan, esaterako, belau-naldi arteko transmisioan behera

egin du katalanak. Populazio osoaren %40ak baino gutxiagok jaso du katalana eta Nazio Batuen Erakundearen muga %30ean dago. Hau da, transmisioaren bidez populazio osoaren %30ak baino gutxiagok jasotzen duenean hizkuntza, arriskuan dagoela esaten hasten dira Nazio Batuak.

Alferrik gaude gaztelaniari begira

Junyentek eleaniztasuna proposatzen du hizkuntza gutxituen etorkizuna bermatzeko bidetzat. “Txepetxek argi esan zuen bezala, dualismoa konfliktoz beteta dago”. Bartzelonarrak, hizkuntzak aztertzen daramatzen urteetatik, ondoko ondorioa atera du: “Munduan desagertu diren hizkuntza gehienak hizkuntza handiagoak ordezkatu ditu. Auzoko hizkuntzak ikasi dituzten komunitateetako hizkuntzek aurrera egin dute”. Horregatik uste du

katalana —eta berdin euskara— ezin dela bizi gaztelaniari begira. “Hizkuntza berri horiek dira gure etorkizuna. Guk orain ondareztat nola hartzen ditugun, hala biziko gara haiekin gerora”. Etorkinen hizkuntza aberastasunarekin elebitasuna apurtu behar dela dio. “Horretarako gai bagara, katalana berkokatu egin dugu gure gizartean, eta agertoki berrietara joango gara”, azaldu du Junyentek. Badaki orobat, etorkin askok ez dakitela, ez, katalanik. “Hizkuntza menperatuta dagoenean, arazorik emango ez digun hizkuntza menperatzailea erabiltzen dugu hiztunok ezezagunekin errazago komunikatzeko, eta azkenean, geuk sortzen dizkiogu geure buruari arazorik handienak”, gaineratu du.

Kataluniako etorkinen %4a euren herrian mehatxatuta dauden hizkuntzetan mintzo da; “guk ordea, elebiduntzat hartzen ditugu, nahiz eta eurek bost edo sei hizkuntza egin! Beraiekin euren herriko hizkuntza mehatxatuen eta gure hizkuntza zapalduen arteko harreman zuzenaz

hitz eginez gero, erreakzioa ona da”. Horrek menpeko hizkuntza ikastera bultzatzen dituela uste du. “Simetria horrekin hizkuntzaren duintasuna berreskuratzen da”. Taldeko kideek ezagutu dituzte kitxua ikasten Katalunian hasi diren perurarrak. “Euren herrian zapalduta dauden eta ikasi ez dituzten hizkuntzen errekonozimendura heltzen dira batzuk”.



Katalunian 260 hizkuntza daude identifikatuta. Junyenten ustez, horietatik 40 bat errotu daitezke Katalunian, duten hiztun kopurua nabarmentzekoa delako.

Aniztasuna da irtenbidea Junyenten ustez: “Edo aniztasunaren alde apustu eginen dugu edo baztertutako hizkuntza bakarra ere ez dugu salbatuko”. Horregatik dio ezin direla migrazio prozesuak mehatxutzat

“Munduan desagertu diren
hizkuntza gehienak
handiagoek ordezkatu
dituzte. Auzoko
hizkuntzak ikasi
dituzten komunitateetako
hizkuntzek aurrera
egin dute”

hartu eta galdera hau luzatu du: “Baliteke guk proposatzen dugun irtenbidea ez izatea zuzena, baina edozelan ere, galduta gaudenez, zer-gatik ez bilatu alternatiba hizkuntza gutxituetan?”. Saiatu ezik ez baita jakiten. “Hizkuntza gutxituek balio

erantsia dute, komunitate jakin baten parte sentiarazten dute hiztuna. Gainera, ezin dugu guk etorkinek gure hizkuntza menperatua onartzerik espero, guk ez baditugu beraienak onartzen”.

Junyentek azpimarratu du hizkuntzak ez direla hizkuntza askoren azpian desagertzen; bakarrak ordezkatzaren dituela. “Ez baditugu etorkinen hizkuntzak kontuan hartzen, ira-

b a z t e k o t a n ,
gaztelaniak irabaziko du”. Hizkuntzalaritzan hainbat urte eman eta gero, irudipena dauka, Katalunian hizkuntzari buruz daukaten kontzeptua traba izan daitekeela. “Hizkuntza erromaniko gehienak lehiakidetzat hartzen dira. Nik nahi dudana da beste hizkuntza batzuekin elkarbizitzea eta ez hitz egin behar izatea beste hizkuntza batean norbaitek

ulertzen ez didalako”. Horretarako, uste du, mundu guztiari onartu behar zaiola nor den: “Diren bezala askoz gehiago emango digute etorkinek”.

Bide horretan garrantzia komunikatzeari ematen dio. “Komunitateen elkartrukerako zerbait dagoen artean komunikazioa posible da. Inposatu gabe hedatu da Euskal Herrian euskara esate baterako, eta hizkuntza konpartitzea guztientzat da ona. Jende askok parte hartzeko moduko proiektuak egin behar ditugu”. Azkenik, hizkuntzak mantenduko badira, erabili eta transmititu egin behar direla azaldu du. “Zenbat eta hiztun gehiago, hitz egiteko aukera gehiago. Norbaitek ulertzen ez digulako, gurea ez den hizkuntzan hitz egin beharra ez da zilegi. Espazio berean aukera desberdinak dituzten pertsona bi dira horiek”, Junyenten arabera.

Migrazio berriak mehatxu baino aukera direla aldarrikatu nahi du, aniztasuna baliatu behar dugula, alegia. Itxaropen hori galtzen badugu, galduta gaudelako. ■